Kualitate LANTALDEA

# Ikus-entzunezkoen Euskal Zerbitzu Publikoari lotutako Aurretiko Azterlan Kualitatiboa.

## Emaitzen Txostena

(2018ko apirila)

# 0. aurkibidea


| | |
|---|---|
| 1. -Testuinguruan kokatzea | 3 |
| 2. -Fitxa teknikoa | 5 |
| 3.-Herritarrek EITBri buruz egindako bat-bateko diskurtsoa | 10 |
| 4.-EITBk helburu jakin batzuk betetzea | 24 |
| 5.-EITBren edukien eskaintzaren balorazioa | 49 |
| 6.-EITBren irudi soziala | 68 |

1. kapitulua

# TESTUINGURUAN KOKATZEA



# 1. Testuinguruan kokatzea

**Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak** aldizkako azterlan kuantitatiboak egiten ditu gaurkotasun soziopolitikoko hainbat gairi buruz Euskadin. Gaur egun, **67. Euskal Soziometroa** egiteko premia dagoela planteatu da, Ikus-entzunezkoen Euskal Zerbitzu Publikoa / EITB oinarri duela, **EITBko Kontrol Batzordearen Ponentziarentzat lagungarria izan dadin erakundearen erreforma integralari buruzko debatean.**



Azterlan hori egin aurreko urrats gisa, **Kualitate Lantaldeari eskatu zaio ikerketa kualitatibo eta parte-hartzaile bat egin dezala**, herritarren diskurtsoa modu ireki eta zabalean eta ñabardurekin bilduko duena, ondoren **azterlan kuantitatiboa egiterakoan kuantifikatuko diren itemak edo aldagaiak zehaztu ahal izateko.**

Guztiok dakigunez, **metodologia kualitatiboaren** zehaztasuna ez da zenbakietan edo estatistiketan oinarritzen, baizik eta **herritarren diskurtsoen edukiaren azterketan oinarritzen den metodologia da, herritarren izendatzaile komunetako handienak aztertzen dituena eta aldagai soziodemografikoen arabera (adina, sexua, ideologia eta abar) dauden desberdintasunak atzemateen dituena.**

Hortaz, ikerketa soziologikoaren eta merkatuen ikerketaren esparruan ohikoa da **aurretiko azterlan kualitatiboak egitea eta, ondoren, inkestetan oinarritutako ikerketak egitea.**

Beraz, **aurretiko azterlan kualitatibo bat** da, **parte-hartzeari lotutako ingurune bat sortzea ahalbidetzen duena herritarren iritzia jasotzeko eta Prospekzio Soziologikoko Kabineteak ahalik eta galde-sortarik eraginkorrena eta herritarrek EITBri buruz dituzten iritziak hitzez hitz jasoko dituzten erantzun-aukerak izango dituena landu dezan errazteko.**



# 2. kapitulua

## FITXA TEKNIKOA

*2.1. Azterlanaren helburuak*

*2.2. Erabilitako metodologia*



## 2.1. Azterlanaren helburuak

Azterlan honen **helburu nagusia herritarrek EITBri buruz adierazten dutena jasotzea da, 67. euskal soziometroa egin aurretiko urrats gisa.**

Helburu hori lau gai-multzotan agertzen da:

1. **EITBri buruzko bat-bateko diskurtsoa.**
2. **EITBk helburu jakin batzuk betetzea.**
3. **EITBren eskaintzaren balorazio soziala.**
4. **EITBren irudi soziala.**

## 2.2. Erabilitako metodologia

Jarraian, proiektuan proposatu ditugun helburuak betetzeko erabilitako **metodologia** zehaztuko dugu.

**Metodologia kualitatiboa** erabili da, **eztabaida-taldeak edo focus group izeneko teknikatik** abiatuta. **Diskurtso-teknika** horri esker, **herritarrek hainbat gairi buruz duten diskurtsoaren funtsezko eta oinarrizko elementuak** bil daitezke eta herritarrek gai horien aurrean duten jarrera zehazten duten arrazoietan eta argudioetan sakontzen da.

Zehazki, **7 eztabaida-talde** egin ditugu, **honako target honekin:**

**EAEn bizi diren 18-70 urte bitarteko pertsonak, komunikabideen (telebista, irratia eta internet) ohiko kontsumoarekin eta EITBren komunikabideren baten noizbehinkako edo ohiko kontsumoarekin.**

**Eztabaida-taldeak** honako aldagai hauen arabera **zatitu dira**:

- **Sexua:** gizonen eta emakumeen diskurtsoa bereizi ahal izateko. Talde guztiak mistoak izan dira, eta emakumeek nahiz gizonek % 50eko presentzia izan dute.
- **Adina:** adinaren arabera iritzietan dauden diferentziak ikusi ahal izateko. 3 adin-tarte aurreikusi dira: 18-30 / 31-45 / 46-70 urte.
- **Lurralde Historikoa:** herritarrak bizi diren lurralde historikoaren arabera ñabardurak gaineratzen dituzten diskurtsoak identifikatu ahal izateko. Hiru lurralde historikoetako ingurune metropoliarretan (Bilbo, Donostia, Gasteiz) eta Uribe-Kosta, Tolosaldea eta Aiaraldeako eskualdeetan bizi diren pertsonekin bilerak egin dira.
- **Euskaraz Jakitea:** taldeetan euskaldunen eta erdaldunen presentzia konpentsatua bermatzeko (2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoaren datuen arabera). % 25 euskaldunak Bilbon eta Gasteizen, eta % 40 Donostian. Gainera, euskaldunez osatutako 2 talde garatu dira, euskaraz garatzen diren komunikabideak (ETB1, ETB3, Gaztea, Euskadi Irratia, eta abar) EITBri buruzko azterketan sartu ahal izateko.

## 2.2. Erabilitako metodologia

Eztabaida-taldeetan EITBren (telebista, irratia, Internet) **kontsumoari dagokionez gutxienez esperientzia txikiren bat duten pertsonez osatutako unibertsoa** osatu da**. EITBren ohiko kontsumitzailetzat** hartu dugu **astean gutxienez 4 aldiz EITBren komunikabideren bat kontsumitzen duen** pertsona. **EITBren ohiko kontsumitzailetzat** hartu dugu **astean gutxienez 4 egunetan EITBren komunikabideren bat kontsumitzen duen** pertsona. **EITBren ohiko kontsumitzailetzat** hartu dugu **astean 1, 2 edo 3 egunetan EITBren komunikabideren bat kontsumitzen duen** pertsona**.**

Eztabaida-taldeak **audioz grabatu dira**, ondoren transkribitu eta azterketak eta dagokion emaitzen txostena egiteko. **Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta gizartea eta merkatuak ikertzeko ICC / ESOMAR nazioarteko kodea betez**, parte hartzen duten pertsonei bilerak audioz grabatzeko baimena eskatu zaie, bertan adierazitakoa transkribitzeko eta ikerketa-taldeak emaitzen txostena egiten duenean tresna gisa erabiltzeko.

Era berean, zehazki adierazi zaie legea betez **euren anonimotasuna eta emandako iritzien konfidentzialtasuna bermatzen dela**, eta horren ondorioz erantzunak ez dira inoiz ere pertsona jakinekin lotuko, kolektibo edo target generikoekin baizik.

**Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteko langile teknikoak eztabaida-taldeetara bertaratu dira entzule gisa**, zuzeneko informazioa eduki ahal izateko eta ondorengo azterlan kuantitatiboaren egikaritzeari lotutako zereginak bideratzeko xedez, eta horrez gain, azterlanaren emaitzak modu ezin hobean interpretatu ahal izateko.



## 2.2. Erabilitako metodologia

**Definitu diren irizpideak oinarritzat hartuz, eztabaida-taldeak honako modu honetan banatu dira:**

| | Bizkaia | Gipuzkoa | Araba |
|---|---|---|---|
| 18-30 urte | Euskaldunak/<br><br>Ohikoak % 50 eta noizbehinkakoak % 50 EITB<br><br>(Bilbo ) | | % 25 euskaldunak/<br><br>Ohikoak % 50 eta noizbehinkakoak % 50 EITB<br><br>(Gasteiz) |
| 31-45 urte | 25 % euskaldunak/<br><br>Ohikoak % 50 eta noizbehinkakoak % 50 EITB<br><br>(Bilbo) | euskaldunak/<br><br>Ohikoak % 50 eta noizbehinkakoak % 50 EITB<br><br>(Tolosa) | |
| 46-70 urte | % 25 euskaldunak/<br><br>Ohikoak % 50 eta noizbehinkakoak % 50 EITB<br><br>(Sopela) | % 40 euskaldunak/<br><br>Ohikoak % 50 eta noizbehinkakoak % 50 EITB<br><br>(Donostia) | % 25 euskaldunak/<br><br>Ohikoak % 50 eta noizbehinkakoak % 50 EITB<br><br>(Laudio) |

Taldeak **mistoak izan dira genero-aldagaiaren ikuspuntutik** (% 50 emakumeak eta % 50 gizonak).

**Landa-lana 2018ko otsailaren 8tik 20ra bitartean** egin da. **Bilboko 18-30 urteko taldea eta Tolosako 31-45 urteko taldea euskaraz egin ziren, gainerakoak gaztelaniaz.**

Herritarren diskurtsoaren bilketa bermatze aldera, **EITBren edozein komunikabidetan edo ekoiztetxeetan edota EITBren hornitzaileak diren enpresetan lan egiten duten pertsonei ez zaie deitu.**

3. kapitulua

# EITBri buruzko bat-bateko diskurtsoa



## 3.1. Bat-bateko diskurtsoaren ardatzak

Kualitate LANTALDEA

# 3. EITBri buruzko bat-bateko diskurtsoa

## 3.1 Bat-bateko diskurtsoaren ardatzak

**Herritarrei EITBri buruz galdetzen zaienean** (inolako eremu edo alderdirik aipatu gabe), ondoren adierazten diren **5 ardatzetan** egituratutako **bat-bateko diskurtsoa** biltzen da:

**“HURBILTASUNA** *transmititzen du”*

*“Es un grupo de comunicación* ***REFERENTE y RECONOCIDO”***

eitb

*“Es una fuente de* ***INFORMACIÓN CREÍBLE”***

*“Denborarekin* ***EBOLUZIONATU*** *du ”*

***“Tiene DIFICULTADES PARA COMPETIR EN TV”***

Ikus-entzuleek EITBri buruz hitz egiten dutenean, batez ere **MODU AFEKTIBO** eta emozionalean egiten dute: **PROPIOTZAT** ikusten den ente bat da, eta beraz, hari buruz parametro **POSITIBOEKIN** hitz egiten da.

***“EITB gurea da”***

***“Te sientes a gusto en ella (ETB)”***

***“Es muy importante para nosotros”***

***“Gure kulturarentzat erabakigarria da”***

Ondoren, 5 ardatzetako bakoitzarentzat egindako ekarpenak xehatzen dira.

# 3. EITBri buruzko bat-bateko diskurtsoa

## 3.1 Bat-bateko diskurtsoaren ardatzak

### eitb "… transmite CERCANÍA porque…"

"DA INFORMACIÓN DE NUESTRO ENTORNO"

"ESTÁ ENFOCADO A LA GENTE DE AQUÍ"

"TRABAJA MUCHO EL EUSKERA Y LA CULTURA"

"REFLEJA CÓMO VIVIMOS"

"TODO LO HACE CON LAS FORMAS Y EL ESTILO DE AQUÍ"

"TIENE ARRAIGO SOCIAL"

*"Argi dago EITB gure bizitzaren barnean dagoela. Hurbileko berriak behar badituzu ETBra jotzen duzu, ez Antena 3era" (31-45 urte, Tolosa)*

*"Telebista bat dago bakoitzarentzat, baina uste dut EITBn gusturago gaudela, oro har gure ideietatik hurbilago dagoelako" (18-30 urte, Bilbo)*

*"Es un soporte muy importante para el idioma de aquí y es un espejo de nuestra cultura. En ese sentido, las emisoras de EITB cubren las carencias que tienen otras, porque yo quiero conocer el marco más cercano a mi" (46-70 urte, Sopela)*

*"Mis padres escuchan Radio Vitoria porque les interesa que hablen de su ciudad, que les cuenten los eventos que va a haber, eso es cercanía" (18-30 urte, Gasteiz)*

*"Es algo tuyo, no solo por el euskera, si no por las formas en las que te cuentan las cosas"(31-45 urte, Bilbo)*

*"Tiene echadas las raíces. Antes nosotros veíamos Telenorte, pero no tiene el mismo gancho con la sociedad" (46-70 urte, Laudio)*

# 3. EITBri buruzko bat-bateko diskurtsoa

## 3.1 Bat-bateko diskurtsoaren ardatzak

**“ … es un GRUPO DE COMUNICACIÓN REFERENTE y RECONOCIDO”**

*“NO ES UN GRUPO DE ANDAR POR CASA, ES POTENTE”*

*“LA OFERTA DE CANALES ES MUY AMPLIA: RADIO, TELE, WEB…”*

*“TRABAJA LOS DISTINTOS GÉNEROS TELEVISIVOS Y DE RADIO”*

*“TIENE CONTENIDOS PARA DISTINTOS PÚBLICOS”*

*“SE LE CONOCE FUERA DE EUSKADI”*

*“Han sabido dar al grupo un buen tratamiento, le han impulsado, le han dado una marca. En ese sentido, para la sociedad es un adelanto tener una televisión como la que tenemos” (46-70 urte, Donostia)*

*“Es el medio de comunicación de Euskadi, y es el más potente. He visto autonómicas de otras sitios, y esta es mejor” (46-70 urte, Laudio)*

*“Es la televisión pública vasca” (18-30 urte, Gasteiz)*

*“EITB ofrece un abanico muy amplio, para quien quiere euskera y para quien quiere castellano, para quienes quieren entretenimiento y para quienes quieren información… ” (46-70 urte, Sopela)*

*“Hay bastante variedad en la programación, tienen programas clásicos, otros más modernos… ”(31-45 urte, Bilbo)*

*“Vayas donde vayas, en el exterior se sabe que EITB es el medio del País Vasco. En Madrid se sabe que ETB tiene El Conquistador, pelota mano… ”(31-45 urte, Bilbo)*

*“EITB es nuestra imagen en el exterior” (18-30 urte, Gasteiz)*

# 3. EITBri buruzko bat-bateko diskurtsoa

## 3.1 Bat-bateko diskurtsoaren ardatzak

**"… es una fuente de INFORMACIÓN CREÍBLE"**

*"ES BASTANTE OBJETIVA"*

*"INTENTA SER IMPARCIAL"*

*"CUIDA LA PLURALIDAD"*

*"Si quieres información un poco objetiva, más te vale ir a EITB" (46-70 urte, Sopela)*

*"Cuentan con periodistas de nivel alto, hacen debates que aportan mucho a la sociedad vasca" (46-70 urte, Donostia)*

*"Los informativos son de más calidad, porque otros como el de Tele 5 van más al sensacionalismo"(31-45 urte, Bilbo)*

*"Yo lo veo con más objetividad, con noticias más precisas y menos manipuladas" (46-70 urte, Laudio)*

*"Yo en imparcialidad le apruebo, creo que no se le nota tanto como a otros" (18-30 urte, Gasteiz)*

*"Se exponen los distintos posicionamientos políticos, cada uno con su panfleto y su punto de vista. En ese sentido, EITB es la más democrática" (46-70 urte, Donostia)*

*"Procés delakoaren gaian beste hedabide batzuk baino inpartzialagoa izan da, hainbat hedabidetan ikaragarria izan baita jendearen buruan gauzak sartzeko egin duten ahalegina" (18-30 urte, Bilbo)*

## 3. EITBri buruzko bat-bateko diskurtsoa

### 3.1 Bat-bateko diskurtsoaren ardatzak

**eitb "… ha EVOLUCIONADO con los tiempos"**

***"SE HA ABIERTO A TEMÁS MÁS GLOBALES"***

***"SE HA ADAPTADO AL MERCADO, SOBRE TODO EN RADIO"***

***"HA INCORPORADO LAS NUEVAS TECNOLOGÍAS"***

*"Antes EITB parecía como más local, pero ahora se puede decir que compite con cualquier otra" (31-45 urte, Bilbo)*

*"En parte ha sabido ir evolucionando con lo que la gente le demanda, con la sociedad y los cambios que ha habido, ha ido incorporando los temas que nos interesan ahora" (31-45 urte, Bilbo).*

*"Gazteak programak progresio bat izan du, euskal gazteek gaur egun zer nahi duten ulertu du, egungo gazteak ez direlako duela hamarkada batzuetako gazteak bezala. Berritu egin dira, zeren berritu egiten zara ala hilda zaude" (18-30 urte, Bilbo)*

*"EITB entzun eta Gaztea datorkit burura, katearen eta egungo gazteen artean antzekotasunak ikusten ditudalako" (18-30 urte, Bilbo)*

*"Con la APP y la web si que se nota al grupo como más actualizado, intentando facilitar más las cosas" (18-30 urte, Gasteiz)*

*"Cuando inauguraron las instalaciones de EITB en Bilbao fue una maravilla, es todo muy moderno y bonito" (46-70 urte, Sopela)*

# 3. EITBri buruzko bat-bateko diskurtsoa

## 3.1 Bat-bateko diskurtsoaren ardatzak

**"… tiene DIFICULTADES PARA COMPETIR EN TV"**

**"TIENE MENOS RECURSOS QUE LA COMPETENCIA"**

**"EMITE MUCHAS REPETICIONES"**

**"ESTIRA LOS PROGRAMAS DE ÉXITO"**

*"Pues está claro que no puedes competir según con qué cadenas. Influye el presupuesto, hay que ver hasta dónde se puede llegar" (31-45 urte, Bilbo)*

*"Algunos programas están caducos, los repiten hasta que terminan aburriendo" (46-70 urte, Donostia)*

*"Tienen muchas repeticiones, todavía te encuentras Vaya Semanita, Date el Bote… de hace muchos años" (18-30 urte, Gasteiz)*

*"Si tienen un programa de éxito, te lo machacan. Lo mismo con algunos personajes y actores" (46-70 urte, Donostia)*

# 3. EITBri buruzko bat-bateko diskurtsoa

## 3.1 Bat-bateko diskurtsoaren ardatzak

**EITBri buruzko bat-bateko diskurtsoan elementu nabarmen** gehienak **EAEko hiru lurraldeetako entzulegora hedatu daitezke.** Hala ere, **bi ñabardura garrantzitsu** egin behar dira:

1. **EITBkiko lotura afektiboa askoz txikiagoa da 18-30 urteko tartean,** lotura hori batez ere **Gaztea**rekin (gaur egun) eta **ETB1**ekin (haurtzaroari lotuta) dago.

*"Mahai honetan ia denok Gaztea entzuten dugu; argi dago puntua hartu diola, nolabait esateko, eta gugana iristen asmatu du" (18-30 urte, Bilbo)*

*"A mí y a mis amigos de pequeños ETB1 nos parecía lo más interesante, con Dragon Ball, Super Bat…" (18-30 urte, Gasteiz)*

**Gazteek** EITBrekin **duten afinitate txikiago horren arrazoia bi faktore nagusi dira**:

- Gazteek **komunikabidea aukeratzen dute beren premiari erantzuna emateko aukerarik onenean** pentsatuz, eta ez balioekin, hurbiltasunarekin eta abarrekin bat datorren aukeraren arabera.

*"Gaur egun zerbait erakargarria iruditzen bazait ikusi egiten dut, berdin dio ETB, Telecinco edo la 1 den. Niretzat ETB beste aukera bat da, beste guztien artean" (18-30 urte, Bilbo)*

*"Gazteek zerbait dibertigarria nahi dute, entretenitzea, besterik gabe. Guretzat entretenigarriena dena aukeratzen dugu, eta berdin dio non dagoen" (18-30 urte, Bilbo)*

- Logikoa denez, gazteek EITBren **kontsumoan ibilbide txikiagoa** dute.

*"Toda la vida veíamos los dibujos en ETB1, ahora apenas veo" (18-30 urte, Gasteiz)*

*"Yo escucho Gaztea todos los días, pero por el resto de cadenas y canales de EITB apenas paso, lo que veo con mis padres y poco más (18-30 urte, Gasteiz)*

# 3. EITBri buruzko bat-bateko diskurtsoa

## 3.1 Bat-bateko diskurtsoaren ardatzak

2.

Bestalde, azpimarratu behar da **30 urtetik gorakoen artean EITBri buruzko diskurtsoa batez ere ETBri** (telebista) **buruzko pertzepzio eta iritzien inguruan eratzen dela, eta 18-30 tarteak Gaztea duela erreferentzia gisa**, eta ez hainbeste EITBren gainerako komunikabideak.

## 3.2. Atzemandako erabilgarritasun soziala

## 3. EITBri buruzko bat-bateko diskurtsoa

### 3.2 Atzemandako erabilgarritasun soziala

Behin EITBri buruzko bat-bateko diskurtsoa bildu ondoren, **enteari atxikitzen zaion erabilgarritasun sozialari** buruz galdetu zen, edota beste modu batean esanda, beren ustez euskal gizarteari egiten dizkion ekarpenei buruz.

**EITBk euskal gizarteari egiten dizkion ekarpen nagusiak**, eztabaida-taldeetan parte hartu zutenen ustez, honako hauek dira:

1. **“GURE IDENTITATEA ISLATZEA”**
2. **“EUSKADIKO INFORMAZIO-ERREFERENTZIA IZATEA”**
3. **“GIZARTEA ENTRETENITZEA”**

## 3. EITBri buruzko bat-bateko diskurtsoa

### 3.2 Atzemandako erabilgarritasun soziala

- EITBri gaur egun atxikitzen zaion funtzio nagusietako bat **IDENTITATE PROPIOA islatu eta ikusgarri egitea da**, hura osatzen duten hainbat elementu baliatuz:

**“nuestra CULTURA”**

**“nuestro IDIOMA”**

**“nuestras COSTRUMBRES”**

**“nuestro DEPORTE”**

**“nuestra HISTORIA”**

*“Niretzat EITBk identitatea ematen du. Etxetik kanpo denbora luzez nagoenean euskarazko irratia jartzen dut eta etxean egongo banintz bezala sentiarazten nau” (18-30 urte, Bilbo)*

*“Es un soporte para la cultura y el euskera. Sin televisión o radio nuestra sociedad no sería la misma” (46-70 urte, Sopela)*

*“Gure gauzei, geurea denari, hemengoari lotutako gauzak ikusi eta entzun ditzakegu” (31-45 urte, Tolosa)*

*“EITB aporta enriquecimiento como sociedad, es algo fuerte y con raíces” (46-70 urte, Laudio)*

*“Hainbat programatan hemengo historia aztertu da, hirien bilakaera, Labe Garaien historia eta abar azaltzen dizu” (18-30 urte, Bilbo)*

*“Tienes todo el tema de traineras, los herri kirolak, el Baskonia… ” (18-30 urte, Gasteiz)*

# 3. EITBri buruzko bat-bateko diskurtsoa

## 3.2 Atzemandako erabilgarritasun soziala

- EITB gaur egun **EUSKADIKO INFORMAZIO-ERREFERENTZIA nagusia** da, eta herritarrek uste dute horrek izan behar duela bere funtzio nagusia.

*"Las noticias de aquí nos interesa verlas con la visión de aquí, con rigor y seriedad. Para eso está EITB" (46-70 urte, Sopela)*

*"Cuando la gente se quiere informar, va a cualquier informativo de EITB. Para mí esto es lo más importante; tienen todo actualizado al momento y hay muy buenos profesionales" (46-70 urte, Laudio)*

*"Para mí lo más importante son los informativos locales muy detallados, porque es lo que no tiene todo el mundo" (46-70 urte, Donostia)*

*"Beste kate batzuetan ez dira hemengo berriak ematen, eta herrietako jendeak EITB atsegin du Euskadiko leku guztietako zerbait azaltzen duelako beti, munduko gauzarik garrantzitsuena ez den arren" (18-30 urte, Bilbo)*

- Azkenik, aurrekoak baino indar txikiagoarekin bada ere, adierazten da EITBk **GIZARTEA ENTRETENITZEKO** funtzioa betetzen duela.

*"Todo el mundo busca algo que le entretenga, películas o series" (46-70 urte, Laudio)*

*"Umorea eta entretenimendua, baina motz geratzen da gure adineko jendearentzat" (18-30 urte, Bilbo)*

*"Ofrece más entretenimiento que otros canales específicamente vascos como Hamaika o las locales, pero menos que otras" (18-30 urte, Gasteiz)*

4. kapitulua

# EITBk helburu jakin batzuk betetzea

## 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea

**EITBren eginkizunari lotutako 6 helburu** aurkeztu ziren, **horien betetze-maila aztertzeko xedez:**

- **Euskal kultura sustatu eta hedatzea.**
- **Euskal ikus-entzunezko industriari laguntzea.**
- **Eraldakuntza digitala eta erronka teknologiko berrietara egokitzea.**
- **Gizartearen eremu guztietan euskararen erabilera bultzatzea** (hizkuntzaren normalkuntza).
- **Hurbiltasuna eta inpartzialtasuna informazioa tratatzerakoan.**
- **Genero-ikuspegia inkorporatzea** (emakume eta gizonen arteko berdintasuna) .

**Horietako bakoitzarekin, ariketa hirukoitza egin zen:**

¿Zein neurritan betetzen du helburua?



Handia Ertaina Txikia

Argudioak



Alde Aurka

Betetzea hobetzeko gomendioak



## 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea

### EUSKAL KULTURA SUSTATU ETA HEDATZEA

**BETETZEA**



EITB kontsumitzen dutenek aho batez adierazten dute **EITBk euskal kultura sustatu eta hedatzeko helburua argi eta garbi betetzen duela.**

*"Nik, ikusle gisa, kultura jasotzen dudala sentitzen dut" (31-45 urte, Tolosa)*



**ARGUDIOAK**

- EITBk **Euskadiko berezko kultura-eremu eta kultura-adierazpenei lotutako edukiak** eskaintzen ditu:

***Euskal kirolak***
*"Estropadak, aizkora txapelketa…"*

***Gastronomia***
*"No es País para Sosos, A Bocados…"*

***Musika, zinea, literatura***
*"Concurso de maquetas Gaztea, presencia de grupos vascos en EITB Musika, concierto de despedida de Oskorri"*
*"Félix Linares en Iflandia"*
*"En Grafitti se habla de cultura general"*

***Natura***
*"Gailurra, Mirada Mágica…"*

***Identitatea***
*"Herri Txiki Infernu Handi"*

***Bertsolaritza***
*"Retransmisión en directo del campeonato"*

***Euskadiko festa bereizgarriak***
*"Los carnavales típicos de algunos pueblos, las fiestas de las tres capitales…"*

***Landa-mundua***
*"Sustraia"*

***Historia***
*"Ocho Apellidos Vascos"*
*"Memoria histórica vasca"*

## 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea



**ARGUDIOAK**

- **Euskarazko eskaintza garrantzitsua du.**

*"ETB1, ETB3, Gaztea, Euskadi Irratia, EITB Musika…"*

**EUSKAL KULTURA SUSTATU ETA HEDATZEA**



**GOMENDIOAK**

**Eremu honetarako eskakizunak honako hauek dira:**

- **Euskal kulturari estaldura ematen jarraitzea.** *"Que sigan informándonos sobre la cultura de aquí como lo han hecho hasta ahora con nuevos formatos, con ficciones históricas…" (46-70 urte, Sopela).*
- **Gazteek kulturarekiko interesa izan dezaten sustatzea, eduki erakargarri** eta interesgarrien bitartez (gazteen targetaren eskaria). *"Zaila da gazteek kulturarekiko, Guggenheimekiko edo historiarekiko interesa izan dezaten lortzea, baina jendea ildo horretan motibatu behar dute, serieen edo marrazki bizidunen bitartez erakargarri bihurtuz" (18-30 urte, Bilbo).*
- **Kultura-erreferentzia tradizionalei** arreta eskaini, **baina baita joera eta adiera berriei ere.** *"En el caso concreto de deporte, podrían dar más visión a los que tienen mucho seguimiento y gente de aquí compitiendo al máximo nivel, como la escalada o el esquí" (18-30 urte, Gasteiz) "Que reflejen lo de antes pero también los nuevos tiempos, las mezclas, los nuevos géneros…" (46-70 urte, Laudio).*

## 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea

### EUSKAL IKUS-ENTZUNEZKO INDUSTRIARI LAGUNTZEA

**BETETZEA**



EITB kontsumitzen dutenek uste dute **euskal ikus-entzunezko industriari laguntzen diola** eta, gainera, **hori egiteko ahalmena eta balabideak dituen Euskadiko erakunde nagusia dela.** Ildo horretan, sektoreko **agente eragile eta enplegu-sortzaile** handia dela uste dute.

*"ETB es la empresa más grande del País Vasco en ese campo. Apoya a la industria del cine y la comunicación" (18-30 urte, Gasteiz)*



**ARGUDIOAK**

- Indar bereziarekin aipatzen da **EITBrentzat programak egiten dituzten ekoiztetxeei emandako laguntza,** baita horrek dakarren enplegua ere. Ildo horretan, uste dute ikus-entzunezkoen enpresa asko EITBren inguruan bizi direla.

*"El número de empresas audiovisuales que se han creado para dar servicio a ETB es importante. Son como satélites, con gente que trabaja en doblaje, estudios…" (46-70 urte, Sopela)*

*"Contrata empresas para muchas cosas, por ejemplo para retransmitir partidos. Ayuda a esas empresas a seguir adelante y les da visibilidad" (18-30 urte, Gasteiz)*

*"Euskal ekoiztetxeekin lan egiten du. Uste dut Goenkale Pausokak produzitu zuela" (31-45 urte, Tolosa)*

*"Trabajan con productoras que hacen contenidos y luego ETB los compra. Son empresas externas que les hacen los productos" (18-30 urte, Gasteiz)*

## 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea

**EUSKAL IKUS-ENTZUNEZKO INDUSTRIARI LAGUNTZEA**

**ARGUDIOAK**

- Azpimarratzekoak dira **euskarazko zinemari produkzio- edo koprodukzio-zereginetan ematen zaion laguntzari** buruzko aipamenak, azken erreferentea hainbat sari lortu dituen **Handia** izanik.

  *"Euskaraz egindako film gehienetan ETBren logoa ikus daiteke. Hor ikusten da sektoreari bultzada eman nahi diotela" (31-45 urte, Tolosa)*

  *"Han dado ayuda para producir Handia" (46-70 urte, Sopela)*

- **Uste dute EITBk profesional onen harrobi-funtzioa duela** ikus-entzunezkoen sektorean, EITBn hasi ziren eta estatu-mailako kateetara jauzia egin zuten profesional eta aktoreak ezagutzen baitituzte.

  *"Yo creo que aquí hay gente buena porque siempre acaban en otras televisiones, todos dan el salto y terminan en Madrid. Emma García, Carlos Sobera, Iñaki López…" (18-30 urte, Gasteiz)*

  *"ETB2ko aurkezle asko Tele 5ra, La Sextara eta abar joan dira, Ramón García, Igartiburu…" (31-45 urte, Tolosa)*

# 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea

*EUSKAL IKUS-ENTZUNEZKO INDUSTRIARI LAGUNTZEA*



**GOMENDIOAK**

Helburua betetzeko hobekuntza-gomendio gisa honako hauek jaso ziren:

- **Euskal ikus-entzunezko industriaren agente eragile izaten jarraitzea.** *"Me parece importante que lo siga haciendo, como principal canal audiovisual vasco" (18-30 urte, Gasteiz)*
- **EITBk euskal ikus-entzunezko sektoreari emandako laguntza** eta bertan sortzen duen inpaktua **agerian jartzea eta hedatzea**, egindako ahaleginari balioa emanez gizartearen aurrean. *"Suponemos que trabajan con productoras vascas, pero no somos del todo conscientes. No sé si no nos quedamos con ello o no lo dicen lo suficiente. Tampoco sabemos de qué forma ayudan o hasta qué punto" (31-45 urte, Bilbo)*
- EITBn **produkzio propioko film eta serieen aldeko apustu handiagoa egitea.** *"Hemengo hainbat serie, adibidez Goenkale edo Klikowsky, ondo zeuden, hemengo jendearekin. Ildo horri jarraitu" (18-30 urte, Bilbo)*
- **Euskal ikus-entzunezko sektorearen berrikuntzaren lider izatea**, produktu orijinal eta berritzaileen sorkuntza bultzatuz. *"Tienen que coger formatos baratos que estén triunfando fuera e intentar traerlos aquí. Creo que podrían tener éxito" (18-30 urte, Gasteiz)*
- **Euskal unibertsitateetako ikus-entzunezkoen prestakuntza-zentroekin lankidetzan jardutea.** *"Podría colaborar con la Escuela de Audiovisuales de la UPV" (31-45 urte, Bilbo)*
- **Sektorean talentu-sorkuntzan laguntzen jarraitzea, eta baliabideek ahalbidetzen duten neurrian taletua hemen geraraztea.** *"Talentua hemen geratzeko gehiago borrokatzea, baina badakigu zaila dela beste kateetan eskaintzen dizkieten baliabideak direla medio" (18-30 urte, Bilbo).*

# 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea

## Eraldakuntza digitala eta erronka teknologiko berrietaera egokitzea

**BETETZEA**



Helburu honen balorazio bat eskatzen denean, eztabaida-taldeetako parte-hartzaileek **zailtasunak dituzte balorazio bat egiteko**, oso teknikotzat jotzen dutelako, batez ere 46-70 urteko tarteak.

Hausnarketa-une baten ondoren, **uste dute EITBk ahalegin handia egin duela erronka teknologiko berrietara egokitzeko, eta hori ezinbestekotzat jotzen da** egungo edozein komunikazio-talderentzat.

*"Cumple pero puede mejorar. Aquí no te puedes quedar atrás"* (31-45 urte, Bilbo)



**ARGUDIOAK**

Helburu honetan **EITBri gainditua emateko diskurtso sozialean bi argudio errepikatzen dira**, eta beste batzuen **presentzia txikiagoa** da (gutxiengo batek bakarrik aipatzen edo ezagutzen ditu).

**Argudio nagusiak:**

- **EITBren webgunea** ondo baloratzen dute bere **eguneratzea, funtzionalitatea eta Nahierara zerbitzuarengatik.**

*"Cuando entras en la web, ves que las noticias están actualizadas. Son puntuales. Pero es que si no lo hacen están muertos…"* (46-70 urte, Laudio)

*"Webgunean bezperako programak edo ikusi ez dituzunak ikus ditzakezu. Beste kateetako webguneak baino errazago erabil daiteke"* (18-30 urte, Bilbo)

## 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea

ERALDAKUNTZA DIGITALA

**ARGUDIOAK**

- **EITBren Bilboko instalazioek irudi modernoa ematen dute.**

  *"El edificio de EITB está muy a mano y es muy moderno, hay una gran diferencia desde que se trasladó a Bilbao" (31-45 urte, Bilbo)*

  *"Oso ondo dago barrutik eta kanpotik, modernoa, ondo zaindua, handia…" (18-30 urte, Bilbo)*

**Bigarren mailako argudioak**:

- ETBri **HD** aplikatzea. *"Tienes la opción de ver la misma cadena en HD o sin HD. Eso se le puede y debe exigir porque está ya muy instaurado" (46-70 urte, Donostia).*
- EITBk **profilak ditu sare sozialetan**. *"Facebooken agertzen da, programa ikusi nahi baduzu egin klik hemen. Presentzia dute" (18-30 urte, Bilbo).*
- **APP funtzionala izatea**, horri buruzko ezaguera orokorra ez den arren. *"Aplikazio bat du eta beste kateetakoa baino errazago erabil daiteke; nahi duzunean sartu, programa aukeratu eta ikusi egiten duzu" (18-30 urte, Bilbo)*
- **Estropadak** ematerakoan **GPS teknologia** inplementatzea. *"En las traineras han puesto el GPS, así se ve bien cuál va la primera porque las cámaras engañan" (46-70 urte, Donostia)*
- **EITBren estaldura** handia **autonomia-erkidego mugakideetan** (Nafarroa, Kantabria, Errioxa eta abar…) *"Lo bueno que tienen tanto la tele como la radio es que se puede ver y escuchar desde la Rioja, abarca mucha zona territorialmente fuera de Euskadi. La cobertura es muy amplia y eso es algo bueno" (18-30 urte, Gasteiz)*

## 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea

*ERALDAKUNTZA DIGITALA*

**ARGUDIOAK**

Ikus-entzule gazteek (18-30 urteko tartea) uste dute EITBk egokitzapen teknologikoa egiten duela, baina **hainbat hobekuntza-eremu aipatzen dituzte**:

- **Telebista-programen estetika neutroa da,** kolore gutxikoa, eta ez da deigarria ikuslego horrentzat.

  *"Koloreei dagokienez nahiko tristea da. Urdina, tristea, hotza… beste kate batzuk baino kolore gutxiagokoa" (18-30 años, Bilbo)*

- **Egia da HD aplikatu dela, baina atzerapenarekin** TDTko beste kate batzuekin alderatuta.

  *"Telebistan duela gutxi arte ez zegoen HD. Orain hobeto ikusten duzu, baina lehen oso gaizki ikusten zen" (18-30 urte, Bilbo)*

- **Nahierarako zerbitzuan irudiaren kalitatea txarragoa da** beste kate batzuetako webguneekin alderatuta, horietan bisualizazio-formatua aukeratu daitekeelako eta HDren aukera dagoelako.

  *"Ni etxeko internetarekin webgunean sartzen naiz eta programen irudi-kalitatea beste kate batzuetakoa baino txarragoa da. Telecincok HD jartzeko aukera ematen dizu" (18-30 urte, Bilbo)*

## 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea

*ERALDAKUNTZA DIGITALA*



**GOMENDIOAK**

Helburua hobeto betetzeko, ikus-entzuleek **honako eskaera hauek** egiten dituzte**:**

- **Sare sozielaten presentzia eta jarduerak handitzea.** *"En redes sociales que esté comunicando continuamente, que es lo que todos los medios hacen ahora" (46-70 urte, Donostia)*
- **Nahierarako zerbitzuan irudi-kalitatea hobetzea.** *"Nahierarako zerbitzuan nahi den kalitatea pertsonalizatu ahal izatea, beste kate batzuek bezala" (18-30 urte, Bilbo)*
- **APPa hedatzea, gehiago erabil dezaten.** *"Uste dut ez dutela behar adina saltzen aplikazioa" (18-30 urte, Bilbo)*
- **Programen erakarpen bisuala hobetzea gazteen targeta erakartzeko.** *"Katearen sorta kromatikoarekin hain koherentea ez izatea eta erakargarriagoa izatea, jendeak hori eskatzen baitu. Hain neutroak eta hain mundu guztiarentzat ez izatea" (18-30 urte, Bilbo)*

## 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea

### Gizartearen eremu guztietan euskararen erabilera bultzatzea
**(hizkuntzaren normalkuntza)**

**BETETZEA**



**Uste dute EITBk euskara bultzatzeko helburua erabat betetzen duela, hainbat kanal euskara soilean dituelako.**

*"ETB1 eta Euskadi Irratia, Gaztea eta ETB3 erabat euskaraz… Ez dakit zer gehiago eska daitekeen" (31-45 urte, Tolosa)*

*EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEA*

**ARGUDIOAK**

EITBk duen euskarazko bitartekoen aniztasunaz gain, diskurtso sozialean **ikus-entzuleak eremu horrekin bat datozela azaltzen duten beste argudio batzuk daude:**

- Uste dute helburu hori betetzen dela batez ere **haurtzaroaren kasuan**, kolektibo horrentzat erabat euskaraz ematen duten **kanal espezifiko batekin** (ETB3). **Gazteen kasuan, Gaztea du** euskara bultzatzeko tresna nagusi gisa.

*"En el tema infantil está sembrando con ETB3, todo dibujos en euskera" (46-70 urte, Sopela)*

*"En Gaztea los presentadores hablan en euskera y lo hacen como cercano, porque hablan igual que cuando hablas con tus amigos" (18-30 urte, Gasteiz)*

## 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea

*USKARAREN ERABILERA BULTZATZEA*



**ARGUDIOAK**

- **Ikastolei eta euskarari laguntzeko ekitaldiei** (Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats, Korrika) **eskainitako estaldura zabala ere aipatzen da.**

  *"Suele apoyar a iniciativas que hay en euskera, dándoles eco, propaganda… El Ibilaldia, el Herri Urrats…" (46-70 urte, Sopela)*

  *"En los eventos en los que puede estar presente está: Korrika, Kilometroak…" (31-45 urte, Bilbo)*

- **Euskararentzat esanguratsuenak diren kultura-ekitaldiak ematen dira**, adibidez bertsolari-txapelketa, erreferentziazko euskal taldeen kontzertuak eta abar.

  *"En ETB1 dan conciertos de grupos en euskera, dieron el concierto de despedida de Oskorri…" (46-70 urte, Laudio)*

- Kirol-emanaldiak (arraunketa, esku-pilota…) euskaraz egiteko erabakia ontzat ematen dute, euskaldunak ez diren ikus-entzuleak euskarara hurbiltzen dituelako.

  *"La mayoría de deportes se retransmiten en euskera. Aunque hay gente que a veces se queje, eso demuestra que se defiende el euskera…" (46-70 urte, Sopela)*

  *"Cuando empezaron a retransmitir partidos de fútbol en euskera mucha gente no sabía el idioma, pero se aprendieron algunas expresiones como <<jokoz kanpo>>. Se ha hecho una labor importante" (46-65, Laudio)*

# 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea

*EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEA*



**GOMENDIOAK**

Euskararen sustapena hobetzeko gomendioak eskatzen direnean, harekin duten harremanaren eta haren ezagutzaren araberako ekarpenak jasotzen dira.

**Euskaldunak ez direnek eta euskaldun berriek honako hau eskatzen dute:**

- Euskarazko kanaletan denok uler dezaketen **euskara batua erabiltzea**, edo, bestela, **azpituluak erabiltzea** jendeak oro har nekez uler ditzakeen euskalkiak erabiltzen direnean. *"A veces cuando hacen una pregunta en el telediario a pie de calle responde alguien en euskera gipuzkoano y no me entero. Agradecería que subtitulasen" (46-70 urte, Laudio)*

- **Euskarazko programa pedagogikoak egitea**, hizkuntzarekin harremanean hasi direnek errazago ikas dezaten. *"Euskaldun berrientzako programaren bat, ikas dezaten, mintzalagun edo antzeko programaren bat" (31-45 urte, Tolosa)*

## 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea

**EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEA**



**GOMENDIOAK**

Ikus-entzule **euskaldun zaharrek** honako gomendio hauek egiten dituzte**:**

- **ETB2 kanalean "arlo euskaldunari" presentzia handiagoa ematea**, euskarazko eduki gehiago sartuz. *"Erraza ez dela jakinik, ETB2k euskalduna ez den jendea gehiago euskaldundu dezake. <<Egun on edo arratsalde on>> erabili, euskarazko eduki edo elkarrizketaren bat sartu… Txip hori badauka dagoeneko ETB2k, eta beste urrats bat egitea da" (31-45 urte, Tolosa).*

- **Programa erakargarriak eta eragin soziala dutenak** (liderrak) egitea euskarazko prime timerako. *"Euskarazko audientzia handiko programa bat behar dugu, El Conquis bat baina euskaraz" (31-45 urte, Tolosa). "Que haya un programa interesante en euskera, de estos que dan que hablar con el compañero de trabajo al día siguiente" (18-30 urte, Gasteiz).*

Maila globalean, **era berean planteatzen da kanal elebidun edo hirueledun bat sortzea**, euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko edukiekin, hiru hizkuntzen elkarbizitza bultzatuz. Adierazi dute ETB4 dela horretarako gune egokia.

*"Avanzar, reaccionar y adaptarse. Fomentar el trilingüismo y, con la excusa del inglés, tendrían una motivación para ponerle eso a sus hijos" (46-70 urte, Sopela).*

## 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea

### Hurbiltasuna eta inpartzialtasuna informazioa tratatzerakoan

**BETETZEA**



Helburu horri buruzko balorazio bat eskatzen denean, eta hurbiltasuna EITBri aho batez ematen zaion elementu bat dela kontuan izanik, **balorazioak inpartzialtasunaren inguruan egiten dira**. Alderdi horri dagokionez, herritarrek **bi jarrera erabat desberdin** dituzte:

- **gehiengoaren jarrera, inpartzialtasun-maila nabarmena duela uste duena**, eta
- **gutxiengoaren jarrera, inpartziala izatetik urrun dagoela uste duena.**





**ARGUDIOAK**

**Gehiengoak duen jarrerak uste du EITB inpartzialtasun-maila nabarmena duen taldea dela, batez ere ezagunak diren komunikabide gehienekin alderatuta.**

EITB inpartzialtasunera hurbiltzen duten ezaugarrietako batzuk honako hauek dira:

## 4. EITBk helburu jakin batzuk betetzea

*INPARTZIALTASUNA INFORMAZIOA TRATATZERAKOAN*

**ARGUDIOAK**

- Aipatzen dute **gai politiko garrantzitsu eta eztabaidagarrietan** objektibotasuna dagoela eta gertakarietara jotzen dela.

  *"La credibilidad te la da la trayectoria que tiene. Aquí hemos sufrido un conflicto y los medios han intentado vender una forma de ver, pero EITB aprendió a transmitir a la sociedad vasca el problema de otra forma más creíble" (31-45 urte, Bilbo)*

  *"Kataluniako kasuan nik benetan gertatu zena ikusi nuen ETBn, kolpeak eta abar. Dena den, beste gauza bat kontatzea nahi dutenek beste kate batzuetara jo dezatela" (18-30 urte, Bilbo)*

- **Iritzi-aniztasuna** debate-programa gehienen ezaugarri bat da.

  *"En el programa de Klaudio meten un tertuliano de cada palo y les dejan tiempo para explayarse y opinar" (46-70 urte, Laudio)*

  *"Cuando dejas hablar a personas con opiniones diferentes, ahí es donde está la imparcialidad. Si cada uno puede exponer su punto de vista, para mí es correcto" (46-70 urte, Donostia).*

